

PRENTSA OHARRA

Kirmen Uribe, Eusko Ikaskuntza-LABORAL Kutxa Humanitateak, Kultura, Arteak eta Gizarte Zientzien Saria 2023

Euskal literaturaren berritzaile nagusietako bat da XXI. mendean eta nazioarte mailan euskara eta euskal kulturaren enbaxadore argia da

Donostia, 2023ko maiatzak 4. Eusko Ikaskuntzak eta LABORAL Kutxak jakitera eman dute gaur 2023ko Eusko Ikaskuntza- LABORAL Kutxaren Humanitateak, Kultura, Arteak eta Gizarte Zientzien Saria curriculum nabarmenaren irabazlea. Sariaren epaimahaia Eusko Ikaskuntzaren eremu geografikoko zazpi unibertsitateetako eta Musikeneko ordezkariak osatu dute, Eusko Ikaskuntza eta LABORAL Kutxako ordezkariekin batera, eta Kirmen Uribe aukeratu dute irabazle 2023an.

Nazioartean arrakasta handia izan duen bere sormen lan bikainari esker, Kirmen Uribek curriculum nabarmenena irabazi du. Euskararen eta euskal kulturaren enbaxadore nagusietako bat da eta 70eko hamarkadako belaunaldiaren erreferentea. Epaimahaiak azpimarratu duenez: “Gure hizkuntza, balioak eta bizimoduak gure mugetatik haratago zabaltzea lortzen duen diplomaziaren adierazgarri dira haren lana eta nortasuna. Eta umiltasunetik, naturaltasunetik eta sortzeko independentziaz abiatuta, idazlea gai da dimentsiorik intimoena eta kultura-komunitate gisa munduaren aurrean dugun presentziaren inguruko hausnarketa existentzialista uztartzeko”. Haren lanak izaera humanista eta irekia du, eta bertan kontzientzia globala eta etikoa antzematen dira, zentzu kritikoa eta ezberdinen arteko elkarriketaren aldeko apustua. Gainera, epaimahaiak balioan jarri nahi izan du geuretik idazten duela eta bere mundu-ikuskeraguztiz euskal dela. Azpimarratzekoa bada ere bizikidetzaren eta berdintasunaren alde egiten duen lana.

Haren lanak hogeiren bat hizkuntzataraz itzuli dituzte. Bere ospea Txina edo Japoniaraino iritsi da, eta plazaratu dituen eleberriak urteko onenen artean daude herrialde horietan. Unibertsitateko 500 bat ikasketek bere obraz hitz egiten dute. Beste genero batzuk ere landu ditu, hala nola poesia, saiakera, haur eta gazte literatura, musika baita arte plastikoak ere.

Gaur egun Estatu Batuetan bizi da. Irakasle aritzen da zenbait unibertsitatetan, errezitalak eskaintzen ditu eta nazioartean hedapena duten literatura-aldizkarietan ematen ditu argitara bere lanak, besteak beste, *The New Yorker* eta *The Paris Review* aldizkarietan. Iowako unibertsitateak nazioarteko idazleentzat duen IWP (International Writing Program) programarako hautatu zuten 2017an, eta 2018an, berriz, New Yorkeko Liburutegi Publikoaren Cullman beka ospetsua eskuratu zuen.

Sari ugari jaso du, honako hauek, adibidez: Kritikaren Saria (2002an, 2009an eta 2016an), Espainiako Literatura Sari Nazionala (2009), 111 Akademiaren saria (2016), eta *Bitartean heldu eskutik* poema-liburua finalista izan zen Estatu Batuetan argitaratutako poesia-itzulpen onenaren sarian, 2007an.

Eusko Ikaskuntza-LABORAL Kutxa Gazte saria

Aste honetan bertan aditzera eman da Eusko Ikaskuntza- LABORAL Kutxa Gazte Sariaren irabazlea eta, **Beñat Garaio Mendizabal** arabarrari egotzi zaio aurten, **“Kia ora, takatāpui: māoriera eta euskararen biziberritze prozesuak elkarlotzen” ikerketa-proiektuarekin**. Aurkeztutako ikerketa soziolinguistikoak Zeelanda Berrian euskara eta maori hizkuntza biziberritzeko prozesuen azterketa konparatiboa egitea ahalbidetuko du. Saria 6.000 euroekin lagunduta dago.

KIRMEN URIBE

EUSKO IKASKUNTZA — LABORAL KUTXAREN HUMANITATE, KULTURA, ARTE ETA GIZARTE ZIENTZIA SARIA 2023

KIRMEN URIBE (Ondarroa, 1970) idazlea da. Euskal Filologia ikasi zuen Gasteizen eta Literatura Konparatuko graduondoko ikasketak egin zituen Trenton (Italia).

XXI. mendeko euskal literaturaren berritzaile nagusitzat jotzen da eta euskara nazioartera zabaldu duena (20 hizkuntzara itzuli da). New Yorken bizi da, eta 2020tik New York Unibertsitateko irakasle laguntzaile gisa aritzen da. Atzerrian egonaldi gehiago ere izan ditu: Columbia University (2018-2020), New York Public Library Cullman Center Fellowship (2018-2019), University of Iowa International Writers Program (2017), Washington University in Saint Louis (2017), OMI International Writers Residency, Nueva York (2015), eta Headlands International Arts Residency, Sausalito (2013). Nazioarteko aldizkarietan eman ditu argitara bere artikuluak, hala nola *The New Yorker*-en (lehen aldiz azaldu zen euskara aldizkari horretan), *Poetry International*, *Poets and Writers*, *Pen America*, *Harvard Review* bestek beste.

2002an Kritikaren Sari Nazionala jaso zuen *Bitartean heldu eskutik* poema liburuagatik, hain justu 2007an PEN Award for Poetry in Translationeko finalista izan zen. 2008an *Bilbao-New York-Bilbao* nobela idatzi zuen eta euskarazko Kritikaren Sari Nazionala eta eta Literatura Sari Nazionala (narratiba) jaso zituen hurrengo urtean. *Elkarrekin esnatzeko ordua* lanarekin Kritikaren Sari Nazionala jaso zuen 2016an eta irakurleek 2016ko liburu hoberenari ematen dioten 111 Akademiako Saria lortu zuen. 2019an *17 segundo* poema-liburua argitaratu zuen eta 2021ean Izurdeen aurreko bizitza eleberria (New Yorkeko Liburutegi Publikoko Cullman beka).

Nobela eta poesia, haur eta gazte literatura, gidoi eta itzulpenak idazteaz gain, antzerki eta musikan ere kolaborazioak egin ditu (Euskadiko Orkestra, Wim Mertens, Quique González, Juan Carlos Pérez edo Mikel Urdangarin), eta poesia “kalera ateratzeko” saiakera egin du.

Euskara eta Euskal Herriarekiko duen konpromisoaren erakusgari dira bere idatziak (atzerrian herria ezagutzera emateko idatzi zuen *Abangoardia maite duen antzinako herria*), erakundeekin duen lankidetzeta (Eusko Jaurlaritzako Nazioarteko eta Euskara batzordeetako kide da), bai eta belaunaldi berrien artean sormena sustatzeko egindako lana ere (Marabili Jaialdia).

NOTA INFORMATIVA

Kirmen Uribe, Premio Eusko Ikaskuntza-LABORAL Kutxa de Humanidades, Cultura, Artes y Ciencias Sociales 2023

Considerado como uno de los principales innovadores de la literatura vasca en el siglo XXI, es un claro embajador del euskera y la cultura vasca a nivel internacional

Donostia-San Sebastián, 4 de mayo de 2023. Eusko Ikaskuntza y LABORAL Kutxa han dado a conocer hoy el fallo del Premio Eusko Ikaskuntza-LABORAL Kutxa de Humanidades, Cultura, Artes y Ciencias Sociales 2023. El jurado del premio compuesto por representantes de Musikene y de las siete universidades del ámbito geográfico de Eusko Ikaskuntza, junto a representantes de Eusko Ikaskuntza y LABORAL Kutxa ha otorgado el galardón al currículum más destacado en las citadas disciplinas a Kirmen Uribe.

Con su brillante trabajo creativo, de importante proyección internacional, Kirmen Uribe se ha alzado con el galardón al currículum más destacado. Despunta como uno de los principales embajadores del euskera y de la cultura vasca y es referente de la generación de los 70. A juicio del Jurado: “Su obra y su personalidad encarnan la diplomacia que logra extender nuestra lengua, valores y formas de vida más allá de nuestras fronteras. Y lo hace desde la humildad, la naturalidad y la independencia creativa de un escritor capaz de combinar la dimensión más íntima con la reflexión existencialista acerca de nuestra presencia como comunidad cultural ante el mundo”. En su obra, de carácter humanista y abierta, se deja sentir la conciencia global y la ética, el pacifismo, el sentido crítico y la apuesta por el diálogo entre diferentes. Además, el jurado ha querido destacar su manera de escribir desde nuestras raíces y la forma en que aporta una visión propia y actualizada del mundo que nos rodea. Cabe destacar su labor a favor de la convivencia y la igualdad.

Considerado como uno de los principales innovadores de la literatura vasca en el siglo XXI, sus obras se han traducido a una veintena de idiomas. Su reconocimiento llega a países como China o Japón donde sus novelas han sido seleccionadas entre las mejores del año. En torno a 500 estudios universitarios hablan de su obra. También ha cultivado otros géneros como poesía, ensayo, literatura infantil y juvenil, e incluso música y artes plásticas.

Actualmente reside en Estados Unidos donde desde hace años viene impartiendo en universidades, a la vez que ofrece recitales y publica en revistas literarias de difusión internacional como *The New Yorker* o *The Paris Review*. Seleccionado para el Programa de Escritores Internacionales (IWP) de Iowa en 2017, en 2018 obtuvo la prestigiosa beca de escritura Cullman de la Biblioteca Pública de Nueva York.

Informazio gehiago / Más información

komunikazioa@eusko-ikaskuntza.eus

+34 618.18.49.49 (Leire Gaceo)

Ha recibido numerosos premios; entre otros: Premio de la Crítica, en tres ocasiones (2002, 2009, 2016), Premio Nacional de Literatura (2009), Premio de la Academia 111 (2016). La versión inglesa de su poemario *Bitartean heldu eskutik*, fue finalista al premio a la mejor traducción de poesía publicada en Estados Unidos en 2007.

Premio Eusko Ikaskuntza-LABORAL Kutxa Gazte saria

Esta misma semana se ha dado a conocer el ganador del Premio Eusko Ikaskuntza-LABORAL Kutxa Gazte Saria, que este año ha recaído en el alavés **Beñat Garaio Mendizabal**, con su **proyecto de investigación “Kia ora, takatāpui: māoriera eta euskararen biziberritze prozesuak elkarlotzen”**. El estudio sociolingüístico presentado permitirá realizar un análisis comparativo de los procesos de revitalización lingüística del euskera y del maori en Nueva Zelanda. El premio está dotado con 6.000 euros.

KIRMEN URIBE

PREMIO EUSKO IKASKUNTZA — LABORAL KUTXA DE HUMANIDADES, CULTURA, ARTES Y CIENCIAS SOCIALES 2023

KIRMEN URIBE (Ondarroa, Bizkaia, 1970) es licenciado en Filología Vasca y Máster en Estudios Avanzados en Literatura y Ciencias Literarias en la UPV/EHU, y cursó estudios de postgrado de Literatura Comparada en Trento (Italia).

Se le considera uno de los principales innovadores de la literatura vasca en el siglo XXI y gran internacionalizador del euskera (ha sido traducido a 20 idiomas). Reside en Nueva York donde desde 2020 imparte como profesor adjunto en la New York University. Otras estancias en centros extranjeros han sido: Columbia University (2018-2020), New York Public Library Cullman Center Fellowship (2018-2019), University of Iowa International Writers Program (2017), Washington University in Saint Louis (2017), OMI International Writers Residency, Nueva York (2015), y Headlands International Arts Residency, Sausalito (2013). Ha publicado en revistas internacionales como *The New Yorker* (siendo la primera vez que la lengua vasca aparece en dicha publicación), *Poetry International*, *Poets and Writers*, *Pen America*, *Harvard Review* y otras.

Premio Nacional de la Crítica en 2002 por el poemario *Bitartean heldu eskutik / Mientras tanto cógeme la mano*, que en 2007 quedó finalista en los PEN Award for Poetry in Translation. En 2008 publicó la novela *Bilbao-New York-Bilbao* con la que obtuvo al año siguiente el Premio Nacional de la Crítica en euskera y el Premio Nacional de Literatura (narrativa). Con *Elkarrekin esnatzeko ordua / La hora de despertarnos juntos* cosechó su tercer Premio Nacional de la Crítica más el Premio de la Academia 111 de lectores vascos al mejor libro del año, ambos en 2016. En 2019 publicó el poemario *17 segundo* y en 2021 la novela *Izurdeen aurreko bizitza / La vida anterior de los delfines* (Beca Cullman de la Biblioteca Pública de Nueva York).

Además de escritor de novela y poesía, de libros de literatura infantil y juvenil, guionista y traductor, ha colaborado en el teatro, en el ámbito musical (con la Orquesta de Euskadi, Wim Mertens, Quique González, Juan Carlos Pérez o Mikel Urdangarin), y se ha esforzado en "sacar a la calle" la poesía.

De su compromiso con el euskera y con Euskal Herria son testimonio su implicación desde la escritura (para dar a conocer el País en el exterior escribió el libro: *Abangoardia maite duen antzinako herria / Un pueblo ancestral que ama la vanguardia*), al igual que su colaboración con las instituciones (miembro de las comisiones Internacional y de Euskera del Gobierno Vasco), así como la promoción de la creatividad entre las nuevas generaciones (Festival Marabilli).